

## Hor doaz hegaldaka ipuinak zure bihotzaren taupada alaia entzuteko irrikaz.

Ni Ipuin Bidaiaria naiz. Noranahi noa hegana. Batzuetan haizearen hegoen edo olatuenen gainean besteetan harearen hego ñimiñoetan zenbaitetan hegazti migratzaileenetan igotzen naiz hegazkinen hegaletara ere Ni zure ondoan eser naiteke, orrialde bat rau zabaldu, eta entzun nahi duzun ipuin hori kontatuko dizut. Nahi duzu ipuin liluragarri eta bitxia? Edo tristea? Beldurgarria ala dibertigarria? Bestela, berriz, lasai; ongi dago orain ez baduzu ipuinik entzun nahi. Nik badakit, halere, inoiz sortuko zaizula gogoia. Orduan deitu niri: “Zatoz, Ipuin Bidaiari, jar zaitetz nire alboan”. Eta ziztuan joango natzaizu hegana.

Milaka istorio dauzkat kontatzeko. Esate baterako, bakarrik sentitzen den irlarena: hain bakarrik zegoen non, lagun bat aurkitzeko, igerian ikasi baitzuen. Edota zero bakarrea bi ilargi agertu ziren gau misteriotsuarena. Edo Olentzero galdu zeneko hura.

Hara! Taup, tup taup, tap taup, tip taup, taup-taup. Hori zure bihotza da, entzun dezaket. Ipuin Bidaiaria zure barrenean sartu da, bihotza berotu dizu eta hegalak zabaldu dizkizu. Ikusten? Ipuin Bidaiari berria jaio da zugan.

Eiko Kadono

2024ko Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna



Itsasoak zeharkatu zure irudimenaren hegoekin

Navega polos mares coas alas da túa imaxinación

Travessa els mars amb les ales de la imaginació

Surca los mares con las alas de tu imaginación

2024ko apirilaren 2a

IBBY INTERNATIONAL BOARD ON BOOKS FOR YOUNG PEOPLE

JBVY

MINISTERIO DE CULTURA  
SECRETARÍA GENERAL DE POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y LINGÜÍSTICA

LIBRERÍA GENERAL DE ESPAÑA

oepli CONSEJO GENERAL DEL LIBRO

CONSELL GENERAL DEL LIBRE

CONSIGLIO GENERALE DEL LIBRO

IBBY

IBBY

IBBY

## Eiko Kadono



Tokion jaio zen 1935ean. Eiko Kadonok bere ama galdu zuen bost urte zituenean eta Pazifikoko gerra bizi izan zuen. Ondorioz, Japoniako iparraldera lekualdatu zuten 10 urte zituela. Hain zuzen, haurra zeneko esperientzia hura da Kadonok bakearekin eta zoriontasunarekin duen konpromiso sakonaren sustraia.

Literatura amerikarra ikasi zuen Wasedako Unibertsitatean eta graduatu ondoren argitaletxe batean lan egin zuen. Ezkondu zenean, senarrarekin joan zen Brasilera eta Sao Paulo bizi izan zen bi urtez; Brasilera eta Brasildik egindako bidaiak luze hartan, beste herrialde batzuei buruzko ezagutza zabaldu zuen. Esperientzia haiek Kadonoren sormen-jardueran eragin, eta bere jakin-mina zein multikulturalismoarekiko jarrera azaleratu zituen. 1970ean argitaratu zuen bere lehenengo liburua, eta orduetik 250 liburu inguru plazaratu ditu; 10 hizkuntzatara itzulita. Kadonok dioenez, «liburu bat irakurtzen hastea mundu ezberdin bati ate bat irekitzea bezala da. Atea ez da ixten istorioaren amaieran, beti dago beste ate bat, noiz irekiko zain. Mundua beste modu batean ikus daiteke istorio bat irakurri ondoren, eta, zentzu batean, hasiera berri bat da. Eta uste dut horretan datzala, egiak, irakurtzearen plazera. Espero dut denak hasiko direla, hemen eta orain, beren historia berria eraikitzen».

Kadonok Hans Christian Andersen saria jaso zuen 2018an.



## Nana Furiya



Tokion jaio zen, Japonian. Ilustratzailea eta haurrentzako hirurogeita hamar liburu ilustratu baino gehiagoren egilea da. *Mekkira Mekkira Dondon* liburua ilustratu ondoren, Eslovakiara joan zen Bratislavako Arte Ederretako eta Diseinuko Akademian Dusan Kallay irakaslearen zuzendaritzapean litografia ikastera.

Liburu ilustratuak sortzen ditu, eta testuak ere idazten ditu.

2012an «Eskuz esku» erakusketa ibiltaria antolatu zuen, Boloniako Erdi Aroko Museoko Lapidariumean inauguratu zena. 2011n arteak hondamendien testuinguruan jokatzeko duen rolaz hausnarketa egiteko gonbidapena egin zuten nazioarteko sortzaileei; hain zuzen, Tohokuko lurrikarak eta zentral nuklearraren istripuak eragindako hondamendiaren harira egin zuen.

Beste proiektu batean bere senar Peter Uchnar-ekin lan egin zuen, margolaria eta grabatzailea da bera. 2019an Seiji Ozawa Matsumoto jaialdian egindako kontzertuetan. Prokofieven *Pedro eta otsoa* filmerako sortutako ilustrazioak proiektatu zituzten. 2020an, ilustrazio haiek Kaisei-sha argitaletxeak argitaratu zituen, Jun Moriyasuk idatzitako testuekin.

Nanak Urrezko Luma irabazi zuen Belgradeko Nazioarteko Ilustrazio Biurtekoan 1999an eta 2021eko White Ravens sarietarako hautatua izan zen.